

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO PODEMOSEN HAUTAGAITZA AUKERATZEKO ARAUDIA

1. HITZAURREA
2. PROZESUAREN OINARRIZKO PRINTZIBIOAK
3. HAUTESKUNDE-EGUTEGIA
4. HAUTAKETA-PROZESUA
5. EMAITZAK JAKINARAZTEA
6. I. ERANSKINA. HAUTAKETA-PROZESUAREN DATAK
7. II. ERANSKINA. NEUTRALITASUN-PROTOKOLOA
8. III. ERANSKINA. BOZKATZEKO LEKUAK

PODEMOS.

1. PROZESUAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK

1. artikulua. Xedea

Araudi honek Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-zerrendak osatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde primarioen prozesua arautzen du.

2. artikulua. Kontrol Organoa

Euskadiko Herritar Kontseilu Autonomikoak zainduko du prozesua bat datorrela Sí Se Puede Herritar Batzarrak ezarritako Politika eta Antolakuntza Printzipioekin. Halaber, Hauteskunde Batzorde bat izendatuko du Araudi hau betetzen dela zaintzeko eta lehen auzialdian sor daitezkeen gatazkak ebazteko.

Estatuko Antolakuntza Idazkaritza arduratuko da Informatika Taldearekin batera prozesuaren funtzionamendu tekniko ona bermatzeaz eta parte hartzeko aukera ematen dieten tresna telematikoak erabiltzeko arazoak dituzten hautagaitza edo zerrendei laguntza emateaz. Baita boto-emaileei ere bozketa-aldian.

Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordeak prozesua Printzipio Etikoen dokumentuan xedatutakoarekin bat datorrela zainduko du eta prozesuaren funtzionamendu ona bermatzeaz, Araudi hau betetzen dela zaintzeaz eta bigarren auzialdian sor daitezkeen gatazkak ebazteaz arduratuko den organoa izango da.

Bozketak agintari independenteek ikuskatuko dituzte prozesuaren gardentasuna bermatzeko.

Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordea da Euskadiko Herritar Kontseiluak hauteskunde primarioetarako izendatutako Hauteskunde Batzordearen jarduketa kontrolatzeaz arduratuko

den organoa. Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordeak zainduko du PODEMOSen Printzipio etikoen dokumentua prozesuko fase guztietan betetzen dela eta Euskadiko Herritar Batzordeak izendatutako Hauteskunde Batzordearen ebazpenen aurkako errekurtsioei buruzko erabakiak hartuko ditu, Araudi hau eta PODEMOSen gainerako arauak aplikatuz. Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordeak bigarren auzialdian ebazitako kasuei buruz ematen dituen ebazpenak apelaezinak izango dira.

2.1 Bateriaezintasunak

Hauteskunde Batzordeak lehen auzialdian ebaziko ditu hautagaitzek Podemosen Estatutuekin izan ditzakeen bateraezintasun guztiak eta Estatuko Antolakuntza Idazkaritzaren laguntza izango du jasotzen duen edozein gorabehera tekniko ebazteko (adibidez, arazo informatikoak, abal-gabezia, hautagaitzak erretiratzea, etab.). Kasu honetan, Zirkulu baliozkotuek, organoek eta hautagaitzek bateraezintasunak jakinarazi edo gorabeheren erreklamazioak egin ditzakete honako helbide elektroniko honetan: listas.autonomicas@podemos.info. Araudian jasotako arauak betetzen ez dituzten jakinarazpenak ez dira aintzat hartuko.

Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordeak ebaziko ditu Hauteskunde Batzordearen erabakien aurkako errekurtsioak, eta baita hautagaiek egin ditzaketen Kode Etikoaren urraketak ere.

Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordeari igorritako jakinarazpenetan beti gehitu beharko da gorabeherari edo jakinarazpenari buruzko azalpen labur eta argi bat, egoki diren dokumentu eta lekukotza guztiekin batera. Organo horrekin harremanetan jartzeko esteka: <https://participa.podemos.info/es/comision-de-garantias-democraticas/comunicacion>.

3. artikulua. Sufragio-eskubidea

Aurkezten diren hautagaitzak herritarrek hautatuko dituzte, modu zuzen eta librean beraien botoarekin. Euskadin Podemosen izena emandako guztiek dute eskubidea sufragio aktiborako (hautatzeko) eta sufragio pasiborako (hautatuak izateko).

4. artikulua. Sufragio aktiboaren murrizketak

Sufragio aktiborako eskubidea izango dute hauteskunde primarioen prozesua iragartzen den unean (uztailaren 11 baino lehen) Podemosen Euskadin izena emanda dauden pertsona guztiek.

5. artikulua. Hauteskunde-zerrendak

Hauteskunde primarioen prozesu honen xedea da Euskadin honako hau ezartzea:

- Lehendakaritzarako hautagai bat
- Hauteskunde-zerrendak osatzen dituzten gainerako 74 pertsonak lurraldean banatuta Legeak adierazten duen bezala (25 hautagai Lurralde Historikoko)

6. artikulua. Hautagaitza-motak

Banako hautagaitzak nahiz taldeak aurkez daitezke. Taldeak zerrenda gisa aurkeztuko dira. Zerrendak irekiak izango dira.

Pertsona bat eta 75 pertsona arteko hautagaitzak aurkez daitezke. "Zerrendatzat" jotzen dira gutxienez hautatu beharreko kideen % 30ek osatutako hautagai-taldeak, hau da, 22koak.

Lehendakaritzarako hautagaitzak pertsona bakarrekoak izango dira eta bereizita bozkatuko dira, baina zerrenda edo talde bati lotuta joan daitezke.

7. artikulua. Hautagaiak zerrendatan elkartzea

Hautagaiak zerrendatan elkartzea nahi badute, elkar daitezke. Dena den, zerrendak irekiak izango dira. Hautesleek askatasunez bereiz edo marka dezakete hautagai bakoitza bozketa-prozesuan.

Ez dago aukerarik zerrenda oso bat ekintza bakarrean markatzeko. Hautesleek berariaz hautatu beharko dute hautagai bat, zerrenda batean edo gehiagotan elkartuta badaude nahiz zerrendan ez badaude.

Hautagai bakoitzak zerrenda bakarrean parte hartu ahal izango du.

Zerrenda jakin batean ez parte hartzea erabakitzen duten hautagaiak zerrenda “zuri” bakarrean elkartuko dira hauteskunde primarioen prozesuaren web-orrian azaltzeko. Zerrendak bi zati izango ditu: Lehendakaritzarako hautagaitza independenteak eta eusko legebiltzarkide izateko hautagaitza independenteak.

8. artikulua. Genero-oreka

Zerrendak genero-kremleran aurkeztu behar dira eta osaera paritarioa izan behar dute.

Eusko Legebiltzarrerako Podemosen zerrenda osatzeko hauteskunde primarioen emaitzak erabatekoak izango dira, 75 hautagaik osatutako zerrenda osatzeko balitz bezala. Bakoitzak lortutako boto-kopuruaren arabera ordenatuta geratuko dira hautagaiak, genero-irizpide zuzentzailearekin. Irizpide hori kontuan hartuta, emaitza kremleran ordenatuko da, emakumeei kalte egin diezaiekeenean izan ezik. Kremlerak emakumeei kalte egin diezaiekeen ebaluatzeko honako irizpide honi jarraituko zaio: bost pertsonako tarte bakoitzean ebaluatuko da kremlerari zorrotz eutsiko zaion edo lortutako boti-kopuruaren arabera kokapen naturala ahalbidetuko den —emakumeek gizonezkoek baino boto gehiago lortu dutelako—. Kasu horretan, hainbat emakume jarraian egon litezke tarte horretan, tarte bakoitzeko emakumeen % 60ko mugarekin, hau da, gehienez hiru emakume bosteko tarte bakoitzean, tarte horretan duten kokapena kontuan izan gabe.

9. artikulua. Hauteskunde-barruti bakarra eta hautagaitzen lurraldetasuna

Hauteskunde primarioak Euskadirako hauteskunde-barruti bakarrean egingo dira, PODEMOSen estatutuek adierazten duten bezala.

9.1 Hautagaitzaren lurraldetasuna

Hautagai bakoitzak bere hautagaitzaren izena emateko unean adieraziko du zer Lurralde Historikotatik aurkeztu nahi duen, euskal hauteskunde-sistemarekin bat etorriz. **Baldintza hori ez da betetzen Lehendakaritzarako hautagaitzan**, izan ere, hautagaiak hautatua izan ondoren erabakiko du zer hauteskunde-barrutitik aurkeztuko den.

Gero, emaitza iragaziko da datu horren bidez behin betiko zerrendak osatzeko, esaterako:

- Boto gehien lortu dituen eta hauteskundeetara Lurralde Historiko horretatik aurkeztu nahi duela adierazi duen pertsona izango da Arabako lehena.
- Iragazketa hori genero-orekarako zuzenketarekin konbinatuko da.
- Lurralde Historikoren bateko zerrenda osatzeko hautagaitzak falta badira, aukeratu duten Lurraldeko zerrendan sartzeko aukera emango zieten babesla lortu ez duten beste Lurralde Historiko batzuetako hautagaitzekin beteko dira postu horiek.

10. artikulua. Neutraltasun-printzipioa

Podemosen egitura ofizialak eta bereziki Zirkuluek prozesu horren bideratzaile izateko ardura dute. Hori dela eta, neutralak izan behar dute beren jardueretan nahiz sare sozialetako kontuetan. Haien erantzukizuna da prozesu osoa sustatzea, esaterako, hautagaitza guztiak aurkezten diren guneak, baina inoiz ez jakineko hautagaitzak. Horrek esan nahi du organo eta zirkuluen kontu ofizialetatik (sare sozialak, posta elektronikoa, etab.) ezingo dela jakineko hautagaitzarik hedatu, prozesu osoa soilik.

Printzipio horrek ez du galarazten banaka izena eman duten pertsonak beraien hautagai gogokoak ezagutzera ematea, batere murrizketarik gabe.

Neutraltasun-protokolo osoa II. Eranskinean dago jasota.

11. artikulua. Sufragio pasiboaren murrizketak

Podemosen postulazioko plataforma telematikoaren erabiltzen duen 18 urtetik gorako pertsona oro aurkez daiteke, baldin eta Sí Se Puede Herritar Batzarrean onartutako dokumentuak, PODEMOSeko organoetatik sortutako araudiak eta bere Kode Etikoa betetzeko konpromisoa hartu badu.

Ez da egongo hautagai gisa postulatzeko data-mugarik.

12. artikulua. Hautagaien abala

Hautagai guztiek Euskadiko PODEMOSeko zirkulu balioztatu baten edo hautatutako organo baten abala izan behar dute.

Zirkulu abal-emaileak sektorialak izan daitezke lurraldetasun-baldintza hori betetzen badute. Lurraldeko zirkuluek Euskal Autonomia Erkidegokoak izan behar dute.

Abalatzeak ez du esan nahi hautagaitza bat babesten denik. Zirkuluek eta organoek hautagaitzak abalatzea Sí Se Puede Herritar Batzarrean onartutako Etika, Politika eta Antolakuntza arloko Printzipioak betetzen direla bermatzeko erantzukizunaren ondorioa da, aurkezten diren pertsonak babesten dituzten edo ez kontuan izan gabe.

Banaka nahiz zerrendaka eska daitezke abalak.

Hautagaitza bakoitzak ezin du jaso PODEMOSeko Zirkulu baliozkotu edo organo bat baino gehiagoren abala. Hautagaitza batek Zirkulu bat baino gehiagoren abala izan nahi badu, hautagaitzako kideei dagokie erabakitzea zer Zirkuluk izapidetuko dien abala.

Zirkulu edo organo bakoitzak, gehienez, 2 zerrendari eman diezaioke abala.

13. artikulua. Abala ukatzea

Euskadiko Podemosen organoek eta Zirkuluek bermatzen dute hautagaitzek gutxieneko baldintzak betetzen dituztela. Funtzio horren arabera, kasu hauetan uka daiteke abala:

- a. Banako hautagaiek edo zerrendako kideren batek Podemosen Kode Etikoa ez badute betetzen.
- b. Zerrenda bateko kideen % 10ek, gutxienez, Zirkuluren batean parte hartu duela bermatzen ez bada.
- c. Zerrenda batean sartuko ez diren eta Zirkuluko bilera bakar batean parte hartu ez duten banako hautagaiek abala eskatzen badute.

Kontu horietakoren batean abala ukatu zaion Zirkuluak edo hautagaitzak Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordera jo dezake desadostasuna ebazteko.

Euskadiko Podemoseko barne-organoek beraien irizpideekin eman diezaiekete abala hautagaitzei. Barne-organo batek pertsona bati abala ukatzen badio, pertsona horrek zirkulu balioztatu hurbilenera jo dezake lortzeko. Zirkuluko kide diren pertsonak ebaluatuko dute hautagaitzaren egokitasuna.

14. artikulua. Zerrenden osaera

Zerrendetan elkartuta aurkezten diren hautagaitzak **behartuta daude** genero-orekaren irizpidea betetzera. Parekotasun-irizpidea bozketen emaitzei aplikatuko zaie.

15. artikulua. Hautagaitzen izenak

PODEMOSen Euskadiko edo estatuko edozein mailatako barne-organoen edo hauteskunde-zerrenden azken hautaketa-prozesuko talderen batek erabilitako izenarekin aurkeztu nahi duten zerrendek talde horietako buruen berariazko baimena eskatu behar dute.

Zerrenden izenek ezin dute hartu zirkulu oso baten ordezkari, egitura horrek neutrala izan behar duela prozesuan. Beraz, ezin dute erabili "Zirkulu" hitza ezein hizkuntzatan.

16. artikulua. Berehalako kanporatzea

Herritarren hauteskunde primarioen prozesutik berehala kanporatzeko arrazoitzat jotzen dira hautagai baten ospea kaltetzea xede duen edozein portaera nahiz Podemosen deliberazio- edo eztabaida-inguruneetan egiaztatutako portaera xenofobo, homofobo, matxista eta iraingarri edo indarkeriazko portaera oro. Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordeari dagokio gorabehera horiek kontuan hartzen direla bermatzea.

2. HAUTESKUNDE-EGUTEGIA

17. artikulua. Hautagaitzak aurkezteko faseak

Hautagaitzen aurkezpen formala modu honetan egingo da:

- a. Hautagaitza aurkeztu nahi duten pertsona guztiak erregistratzea.

Euskadiko hauteskunde-zerrendetan banaka sartu nahi duten pertsona guztiek Euskadiko Herritar Batzordeak ezarritako epeen barruan bete behar dute hautagaitza-inprimakia. Podemosen sistema telematikoetan izena emanda dauden pertsonak soilik bidal ditzakete hautagaitzak, mugarik gabe aipaturiko sistemetan izena emateko datetan. Podemosen izena ematea participa.podemos.info atariaren bidez egiten da. Inprimaki horri hautagaitza abalatzten duen Zirkuluaren edo organoaren bilerako akta (PDF formatuan, gehienez 2MB) eta laburpen biografikoa gehitu behar zaizkio.

- b. Zerrendak erregistratzea.

Zerrendak osatu nahi dituzten pertsonak horretarako inprimaki espezifikoa bete behar dute. Inprimaki bakarra bidaliko da zerrenda bakoitzeko, zerrenda osatzen duten pertsona guztien izenekin. Zerrenden inprimakian PODEMOSen sistema telematikoan izena emanda dauden pertsonak soilik sar daitezke, aipaturiko sistemetan izena emateko datetan mugarik ezarri gabe.

Bozketa-prozesua errazteko xedez, "zerrendatzat" joko dira gutxienez hautatu beharreko kideen % 30ek osatutako hautagai-taldeak (22 pertsonakoak).

18. artikulua. Inprimakiak bidaltzean sortutako arazoak konpontzeko arauak eta epea

Hautagaiek inprimakian zuzenean sartutako datuak, behin bidali eta gero, konponezinak izango dira. Horrek esan nahi du ezingo direla aldatu bidalitako argazkiak, biografiako testuak, motibazioa eta hautagaien izenak.

Halaber, hautagaitzak erregistratutakoan, ezingo da eskatu postulatzeko organoa aldatzea.

Hautagaiek bozketak hasi baino 24 ordu lehenago arte erretira dezakete hautagaitza.

Erabiltzailearekin zerikusirik ez duen arazo informatikoren batek eragin dituen eta honako baldintza hauek betetzen dituzten gorabeherak soilik izapidetuko dira:

- Arazo informatikoa sistema teknikoaren hutsegiteen ondoriozkoa izatea.
- Gorabehera teknikoa behar bezala bidaltzea ezarritako epeen barruan honako helbide honetara: **listas.autonomicas@podemos.info**

Jakinarazpen hori epea agortu baino lehen gauzatzen ez bada, ez da konpontzeko aukerarik izango, ezta hautagaitzak erregistratuta geratu ez diren kasuetan ere (erregistratutakoan baieztatzeko posta elektronikoa bidaltzen da).

Gorabehera tekniko horiek izapidetzeko, bidaltzen den posta elektronikoak honako hauek bete behar ditu:

- Podemosek jasota duen helbidetik bidali behar da beti posta elektronikoa (egiaztatu datuak participa.podemos.info helbidean).
- Inprimakia bidaltzeko ahaleginean azaldu den errorearen pantaila-harrapaketa erantsi behar da. Pantaila-harrapaketa hori gakoa da arazoa antzemateko eta soluzioa emateko.
- Zure posta elektronikoari eman diogun erantzuna jasotzen duzunean, 24 orduko epea izango duzu zure eskaera prozesatzeko eskatu dizkizugun materiala edo datuak

bidaltzeko. Eskatutakoa epe barruan jasotzen ez badugu, gorabehera itxita geratuko da gero konpontzeko aukerarik gabe.

- Ez bidali fitxategi egikarigarriak erantsita. Horrela, posta elektronikoa automatikoki ezabatzen da.
- Hizkera itsusia edo mehatxuak dituzten posta elektronikoak ez dira izapidetuko.
- Ehunka (batzuetan milaka) posta elektronikoa jasotzen ditugu egunean. Denon erantzukizuna da gorabeheren kudeaketa erraztea. Horregatik, hauxe eskatzen dugu:
 - a. Argiak eta laburrak izatea izapidetu beharreko gorabehera azaltzeko orduan.
 - b. Gorabeherarentzat irekitako ildo beraren barruan erantzutea beti (kasu berarentzat ildo berriak irekitzeak gorabehera konpondu gabe geratzea eragin dezake).
 - c. Posta elektronikoa bat baino gehiago ez bidaltzea eskaera berarekin. Nahi denaren kontrako ondorioa eragiten du: erantzuna lehenago jaso beharrez, posta elektronikoaren kopurua handitu eta horiek prozesatzea moteltzen du.

Gorabeherak izapidetutakoan, egin beharreko aldaketak zuzenean gauzatuko dira, eraginpeko pertsonen baieztapekin bidali gabe.

19. artikulua. Hautagaitzak argitaratzea eta berrikustea

Behin-behineko hautagaitzak <http://podemos.info> web-orrian argitaratuko dira egutegian zehaztutako egunean zehar (l. eranskina). Zerrenda horiek ez dira behin betikoak izango bozketa-aldia hasten den arte.

Euskadiko Herritar Kontseiluko Hauteskunde Batzordeak eta Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordeak ikuskatuko dute prozesurako ezarritako baldintzak betetzen direla (batik bat

Printzipio Etikoei buruzkoak) eta hautagaitzak horietara egokitzeko egokitzat jotzen dituzten aldaketak eskatu ahal izango dituzte, eta behar izanez gero baita baliogabetzeko eskatu ere.

Lehen adierazi den bezala, hautagaiek bozketak hasi baino 24 ordu lehenago arte erretira dezakete hautagaitza.

Zerrendak argitaratu eta hurrengo 24 orduetan, hautagaitzetan arazo teknikoen ondoriozko erroreak antzematen dituzten hautagaiek errore horiek konpontzea eska dezakete, baldin eta listas.autonomicas@podemos.info helbidera bidaltzen badituzte eta 18. artikuluan adierazitako posta elektronikoa bidaltzeko jarraibideak betetzen badituzte.

Aldi horretan bertan, Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordeari bidal dakizkioke beste hautagaitza batzuetan antzemandako irregulartasunak Podemosen Kode Etikoa edo Araudi honetan xedatutako arauak ez dituztelako betetzen, esteka honen bidez:

<https://participa.podemos.info/es/comision-de-garantias-democraticas>

Aurreko artikuluan adierazi den bezala, ez zaie jaramonik egingo inprimaki bidez bidalitako datuak aldatzeko eskaerei. Beraz, hautagaiek inprimaki bidez zuzenean sartutako datuak ezingo dira aldatu. Zerrendak argitaratu eta 24 ordu geroago bidalitako erroreak konpontzeko eskaerak edo azaldutako baldintzak betetzen ez dituztenak ez dira kontuan hartuko.

20. artikulua. Hautagaitzen hauteskunde-kanpaina

Hautagaitza edo zerrenda bakoitzak bere kideak ezagutzera emateko egokitzat jotzen diren jarduerak antolatuko ditu.

Hauteskunde-kanpaina egutegian zehaztutako datetan egingo da, eta kanpainako ekitaldiak aldi horretara mugatu beharko dira. Aldi horren aurretik hautagaitzak aurkez daitezke botorik eskatu gabe.

Euskadiko Herritar Kontseiluak zainduko du Podemosen web-orrian gune bat prestatzen dela hautagaitza guztiak baldintza berdinetan ezagutzera emateko.

Euskadiko Herritar Kontseiluak parte hartzeko guneak eta dinamikak sustatuko ditu hautagaiak agerian jartzeko eta hautagaien eta herritarren arteko elkarrizketa errazteko. Horiek zehaztea, hautagaitza-kopuruaren eta antolakuntzaren baliabide-erabilgarritasunaren arabera teknikoki egokienekotzat jotzen denaren baitan egongo da.

Neutraltasun-printzipioari jarraituz, euren kontu ofizialen bidez (sare sozialak, posta elektronikoa, etab.), alderdiko Zirkuluek eta organoek ezingo dute jakineko hautagaitzarik hedatu. Zirkuluak behartuta daude printzipio hori errespetatzera, eta prozesua bere osotasunean eta hautagaitza guztiak aurkezteko prestatutako guneak soilik sustatu ahal izango dituzte.

3. HAUTAKETA-PROZESUA

21. artikulua. Nork eman dezake botoa

Euskadiko Podemosen izena emandako edonork eman dezake botoa Eusko Legebiltzarrerako Euskadiko Podemosen hauteskunde primarioetan.

22. artikulua. Botoa emateko prozedura

Botoa telematikoki emango da helbide honen bidez <https://participa.podemos.info>.

Presentziazko mahaiak gaitu ahal izango dira herritarrei boto telematikoa errazteko.

Mahaien arauak III. eranskinean daude xehatuta.

Zerrendetan txertatu gabe aurkezten diren hautagaitzak, besterik adierazi ezean, zerrenda bakar batean elkartuko dira eta izenak ausaz erakutsiko dira hautesle bakoitzarentzat.

Hautaketa zerrenda irekietan egingo da, hau da, hautesle bakoitzak bere gogokoena nor den adierazi ahal izango du zerrenda osoen arabera, zerrenda desberdinetako hautagaien arabera edo zerrenda batean sartu gabeko hautagaien arabera.

Hautesle bakoitzak, gehienez, 75 pertsonari eman diezaieke botoa: Lehendakaritzarako hautagaitza bati eta Eusko Legebiltzarrerako beste 74 hautagairi.

23. artikulua. Bozketa-aldia

Bozketa hiru egunez egongo da irekita.

Hauteskunde primarioen aldi osoan ezingo dira udalerrri-aldaketak egin Podemoseko inskripzio-erregistroan (participa.podemos.info helbidean blokeatuta egongo da lehendik izena emanda dagoen udalerrria aldatzeko aukera).

4. EMAITZEN JAKINARAZTEA

24. artikulua. Bozketaren emaitzen zuzenketa

Boto gehien jasotzen duten pertsonak izango dira hautatuak, zer taldetakoak diren kontuan izan gabe.

Hauteskunde Batzordeak Lurralde Historikoka banatuko ditu hautatuak, hautagaiaren Lurraldearen, primarioetako hautaketa-ordenaren eta genero-orekaren hautaketa-irizpideei erreparatuta.

25. artikulua. Emaitzak jakinaraztea

Hauteskunde Batzordeak emaitza-zerrenda jakinarazi eta argitaratuko du bozketa-prozesua amaitu eta 24 ordu igaro baino lehen.

26. artikulua. Erreklamazioak

Argitaratutako emaitzen aurkako errekurtsioa jarri ahal izango da Euskadiko Berme Demokratikoen Batzordearen aurrean, PODEMOS Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetara aurkeztearen kalterik gabe.

27. artikulua. Bozketa-sistema telematikoaren berme gehigarriak

Podemosek erabiltzen duen bozketa-sistema telematikoa gaur egungo seguruenetakoa eta bermatzaileenetakoa da teknikoki. Segurtasuneko elementu gehigarri gisa, honako ekintza hauek egin behar dira bozketa-prozesuari hasiera eman baino lehen:

- Errolda ixtea hauteskunde primarioak deituz prentsa-oharra bidali behar den egunean, hau da, 2016ko uztailaren 11n. Beraz, ezingo dute bozkatu, Podemosen data horren ondoren izena eman duten pertsonak.

- Bozketa-sisteman sartzeko kontrola indartzea, izena emandako bakoitzak Partaidetza Atarian sartzeko egiaztatutunez gain, SMS bidez igorriko den kodea sartzeko premia ezarriz.
- Euskal Autonomia Erkidegora aldatzeko aukera blokeatzea hauteskunde primarioen prozesua iragartzen duen prentsa-oharra igorritako egunetik. Ezin dute botorik eman uztailaren 11 baino lehen beste autonomia-erkidego batean izena emanda egon eta data horretatik aurrera Euskadira aldatzen diren pertsonak.
- Kontaketa-egunean, gutxienez Lehendakariarako hautagaitza bat eta zerrenda bat aurkeztu dituen hautagaitza bakoitzak aukera izango du Podemosen Madrilgo egoitzara kontu-hartzaile bat bidaltzeko, behar diren segurtasun-neurri guztiak eta iruzurraren aurkako neurri guztiak hartu direla egiaztatzeko.

I. ERANSKINA. HAUTAKETA-PROZESUAREN DATAK

1. Araudia argitaratzea: uztailak 13
2. Hautagaitzen eta zerrenden abalak ematea: uztailaren 11tik 21era
3. Banako hautagaitzen izen-ematea: uztailaren 22tik 24ra
4. Zerrenden izen-ematea: uztailak 25
5. Behin-behineko zerrenden argitaratzea: uztailak 26
6. Zuzenketak: uztailaren 22tik 26ra
7. Behin betiko zerrendak argitaratzea: uztailak 27
8. Hauteskunde-kanpaina: uztailaren 27tik 31ra
9. Bozketa-aldia: uztailaren 29tik 31ra
10. Eraitzen jakinaraztea: abuztuak 1

II. ERANSKINA. NEUTRALITASUN-PROTOKOLOA

Hauteskunde primarioen prozesu honetan, Zirkuluek neutraltasun-protokoloa errespetatu behar dute euren eguneroko jardueran nahiz sare sozialetan. Eztabaidak jendeak egiten ditu. Zirkuluek dute eztabaida horiek sustatzeko eta adoretzeko erantzukizuna, baina baita neutraltasunez jokatzekoa ere, eztabaida ahalik eta garbiena izan dadin.

ZIRKULUEN NEUTRALITASUN-PROTOKOLOA SARE SOZIAL KORPORATIBOETAN:

1. Zirkuluek izango dute Podemosen kontu korporatiboetatik organo autonomikoetarako hautagaitza guztiak kokatuta dauden guneak sustatzeko ardura. Inolaz ere ezin dituzte sustatu jakineko banako zerrenda edo hautagaitzak, prozesu autonomikorako aurreikusitako hautagaitza-kopuruak galarazi egiten duelako haien sare bidez berdintasunean sustatzea. Beraz, guztiak baldintza berdinetan ezagutzera emateko modu bakarra denak kokatzen diren gunea soilik sustatzea da.
2. Hautagaitza guztiek sor ditzakete profil propioak sare sozialetan euren hautagaitzak sustatzeko, baina ezin dute lausoak izan edo Podemoseko sare ofizialekin nahasteko aukerarik eman (ezin dira erabili Podemosen logo edo iragarki-banda ofizialak, eta deskribapenean hautagaitza baten kontua dela adierazi behar da).
3. Hautagaitzak eta bozketak sustatzeko prozesuan zehar, Podemosen kontu ofizialek hainbat kanpaina egingo dituzte parte hartzera bultzatuz eta gune erkideak sustatuz, baina jakineko hautagaitzak sustatu gabe.
4. Hautagaiek eskubidea dute protokolo hori jakineko hautagaitza baten mesedetan bete gabe ez dela geratuko bermatzeko, eta horrela gertatuz gero, Zirkuluari eta Zirkuluko sare sozialen pertsona arduradunei bete dadin erreklamatzeko.

III. ERANSKINA. BOZKATZEKO LEKUAK

Podemosen izena emandako pertsonen hauteskunde primarioen prozesuan parte-hartzea indartzeko eta jendeari ordezkari autonomikoak hautatzea zailtzen dieten oztopo teknologikoak ezabatzeko asmoz, bozkatzeko lekuak jarri ahal izango dira kaleko mahaietan, edonork sufragio aktiborako bere eskubidea gauza dezan.

Bozkatzeko leku horiek ezartzeko, Estatuko Antolakuntza Idazkaritzari jakinarazi behar zaio secretaria.organizacion@podemos.info posta elektronikoaren bidez, honako datu hauek sartuta:

- Posta elektronikoaren gaia izango da: "Bozketa-mahaia" + MAHAIAREN UDALERRIA.
- Bozketa-mahaien arduradunaren izena, posta elektronikoa eta telefono mugikorra.
- Zenbat mahairen ardura duen.
- Jendeari bozketa-kabinetara sarbidea emateko erabiliko dituen gailu elektronikoen IP helbidea.